

Eskola Agenda 21a. Komunitateraren parte-hartzea Andoainen

(School Agenda 21. The participation of the community in Andoain)

Agirre Pérez, Xabier

La Salle, 2 - 3. B. 20140 Andoain. xabxab@yahoo.com

Nazio Batuek Río de Janeiron 1992an Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentziaren barnean antolatutako Lurraren Gai-lurrean Agenda 21aren eskuliburua adostu zen ekonomia, gizarte eta ingurumen arloan Garapen Iraunkorra lortzeko ezinbesteko osagai bezala. Bertan adostutako konpromisoaren aplikazio bat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ari diren Eskola Agenda 21ak dira. Idatzi honetan Komunitatearen Parte-hartzea nola garatu den eta zein emaitza lortu diren azaltzen da.

Giltza-Hitzak: Garapen iraunkorra. Agenda 21a. Eskola Agenda 21a. Andoain. Parte-hartzea. Hezkuntza. Hezkuntza Komunitatea.

En la Cumbre de la Tierra que formaba parte de la Conferencia sobre Medio Ambiente y Desarrollo organizada por las Naciones Unidas en 1992, se adoptó el manual de la Agenda 21 como elemento imprescindible para lograr un Desarrollo Sostenible en el campo económico, social y medioambiental. Una aplicación del compromiso acordado entonces lo constituyen las Agendas 21 que actualmente se están desarrollando en la Comunidad Autónoma de Euskadi. En este trabajo se explica cómo se ha desarrollado la participación de la comunidad y los resultados obtenidos.

Palabras Clave: Desarrollo sostenible. Agenda 21. Agenda 21 Escolar. Andoain. Participación. Comunidad Educativa.

Lors du Sommet de la Terre qui faisait partie de la Conférence sur l'Environnement et le Développement organisée par les Nations Unies en 1992, le manuel de l'Agenda 21 fut adopté comme élément indispensable pour obtenir un Développement Durable dans les domaines économique, social et environnemental. Les Agendas 21 qui se développent actuellement dans la Communauté Autonome d'Euskadi constituent une application du compromis alors accordé. Ce travail explique comment s'est déroulée la participation de la communauté et les résultats obtenus.

Mots Clés: Développement durable. Agenda 21. Agenda 21 Scolaire. Andoain. Participation. Communauté Educativa.

Nazio Batuek Rio de Janeiro 1992an Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentziaren barnean antolatutako Lurraren Gailurrean Agenda 21aren eskuliburua adostu zen, munduaren garapenerako erreferentzia izan zedin.

Agenda 21a aplikatzeko garaian gizartearen inplikazioa ezinbestekoa denez Euskal Autonomia Erkidegoan udalei eta tokiko bestelako administrazioei eman zitzaizen parte-hartzea sustatu eta Tokiko Agenda 21ak abiarazteko ardura. Gizartearengandik gertuen dauden administrazioak direnez bitartekari egokiak dira bertako eragileen parte-hartzea lortzeko eta honela gizartearen iritzi eta kezkek jasotzen dira tokiko arazoei modu egokiagoan aurre egiteko.

Eskola Agenda 21a Tokiko Agenda 21aren ezinbesteko osagaia dugu non hezkuntza komunitatearen parte-hartzea bideratzen den. Prozedura zehazteko Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ardurapean dagoen Ingurugela-CEIDA organoak herri ezberdinetan garatzen diren prozesuak koordinatzen dituzte herri arteko aniztasuna ahalbidetu arren.

Organo honek argitaratutako "Jasangarritasunerako hezi – Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida"n oinarrituz Eskola Agenda 21aren helburu orokorra hurrengo litzateke: "Gizakiaren-gizartearen-ingurumenaren" arteko harremanak hobetu eta bizi-kalitatearen eta ingurumen-kalitatearen arteko oreka dinamikoa sortu edo eusteko bakarka edo taldean esku hartu nahi duten hiritar aditu eta arduratsuak sortzea.

Hau lortzeko Eskola Agenda 21aren bidez Hezkuntza-proiektua hiru esparru ezberdinetan egokitu behar da:

- Eskola-ingurunearen Kudeaketa Jasangarria:
- Curriculum Berrikuntza
- Komunitatearen Parte-hartzea

KOMUNITATEAREN PARTE-HATZEA ANDOAINEN

Lehen bi esparruak ikastetxe barnean lantzen badira Komunitatearen Parte-hartzea herri mailako ikerketara bideratzen da, diagnostiko bat egin, foro ezberdinetan proposamenak landu eta, azkenik, udalbatza batean proposamenak udal arduradunei helarazi. Herriko egoera aztertzeke herrian zehar egiteko jarduerak prestatzen dira atal ezberdinak landuz eta ikasmaila bakoitzera moldatuz.

Andoainen Lehen Hezkuntza (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eskaintzen dituzten lau hezkuntza zentroek Eskola Agenda 21ean parte-hartu zuten eta guztiek gai bera lantzea erabaki, hots, hondakinen arazoa.

Hondakinen gaia lantzeko bost Parte-hartze jarduerak prestatu ziren, Lehen Hezkuntza (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ziklo

bakoitzarentzat jarduerak bana egokituz eta Andoaingo herriaren berezitasunak kontuan izanik.

1. Hondakinak bildu eta bereiz ditzagun – hondakinak eta edukiontzien azterketa egin zen.
2. Hondakinen argazkiak – hondakinen eta edukiontzien azterketa eta argazkiak egin ziren.
3. Arduratsuki kontsumitzen – kontsumoa aztertzeko galdeketa egin zitzaizkien herritarrei.
4. Hondakinen kudeaketa – mapa bidez edukiontzien banaketaren azterketa egin zen.
5. Kanean galdezka – herritarrek hondakinei buruz duten iritzi, ezagumendu eta ohiturak aztertu ziren galdeketa bidez.

Jarduerak bakoitzaren ostean diagnostikoa egiteko, konpromisoa hartzeko eta proposamenak egituratzeko galdeketa bete zituzten ikastetxean.

Jarduerak guztiak amaitzerakoan eta lortutako emaitzak bateratzeko asmoarekin ikasleak bi foro ezberdinetan bildu ziren bata LHko ikasleekin eta bestea DBHkoekin. Diagnostikoaren emaitzak azaldu ondoren ikasleak eztabaidan aritu ziren udal arduradunei eramateko proposamenak eta hartutako konpromisoak adosteko.

Ikasturte amaieran udalbatza berezi bat antolatu zen, non, Alkate eta udal ordezkariak ikasleekin ordezkariak bildu zituzten. Alkatearen agurra jaso ondoren ikasleek adostutako proposamenak eta hartutako konpromisoak luzatu zituzten, lehenik LHkoek eta jarraian DBHkoek, eta Udal zinegotzi batek proposamenei erantzun bateratu bat eman zien. Udalak ikasleekin proposamenak aintzat hartuz hainbat neurri hartzeko konpromisoa agertu zuen.

ONDORIOAK

Finkaturiko helburu guztiak hein handi batean bete ziren eta prozesuaren emaitza positiboa izan zela esanenez, hala ere, Andoainen egiten zen lehen esperientzia zenez zailtasunak egon ziren eta izandako esperientzia lagungarria izango da datozen saioak hobetzeko.

Lortutako helburuetatik bereziki azpimarragarria da hezkuntza zentro guztien aldetik egon den elkarlanerako borondatea eta honek Eskola Agenda 21aren prozesua asko sendotzen du. Irakasleekin arteko harremanak oso faboragarriak izan dira eta adostasunera iristea nahiko erraza izan da. Ikasleak ere, foroetan eta Udalbatzan elkarrekin aritu ondoren, harreman eta integrazio handia agertu dute.

Azkenik, Udal ordezkariaren konpromisoa ere azpimarra dezakegu ikasleekin eskaerei erantzun baitiete hein handi batean eta inplikazioa maila handia agertu baitute.